

## 72. FITXA Udalaren kanpoko argiteria-instalazioak berritzeko proiektu berezietarako laguntza-programaren 2. deialdia

**Nori zuzendua:** kanpo-argiterirako udal-zerbitzu publikoen kudeaketa esleitzen zaien toki-erakundeak eta erakunde publikoak, betiere merkatua ekoizten duen erakundea ez bada edo merkatu jakin batean ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoa egiten ez badu.

**Sarbide-esteka:** [Udalaren kanpoko argiteria-instalazioak berritzeko proiektu berezietarako laguntza-programaren 2. deialdia \(Udal Argiterirako Proiektu Bereziak\) FNEE | IDAE Egoitza](#)

**Erreferentziazko araudia:** [Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren \(IDAE\) Administrazio Kontseiluaren 2024ko abenduaren 19ko Ebazpenarena laburpena. Ebazpen horren bidez, udal kanpoko argiteria-instalazioak berritzeko proiektu berezietarako \(Udal Argiterirako Proiektu Bereziak\) laguntza-programaren bigarren deialdia ezartzen da\)](#)

**Eremuak:** Energia eraginkortasuna

**Zenbatekoa:** 155.000.000 €

**Eskabideak aurkezteko epea:** 2025/01/27ko 12:00etatik 2025/03/20ko 12:00ak arte.

### Laburpena

Norgehiagoka-erregimenean emango diren laguntzak dira, udalaren kanpoko argiteria-instalazioak berritzeko proiektu berezien gauzatzea finantzatzeko **mailegu itzulgarriak** formalizatzeko.

### Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Aginduaren I. eranskinean, hautatu ahal diren jardueren deskribapena adierazten da.

Jarduketek **azken energia-kontsumoa eta karbono dioxidoaren emisioak murriztea** lortu beharko dute, eraginkortasun energetikoa hobetuz, hasierako egoerarekin alderatuta.

Hautatu ahal diren Jarduerak dira **dauden argiteria-instalazioen argi-potentzia murriztea** ezaugarri komun gisa duten jarduketak. Horretarako, egungo argiteria-ekipoen ordez errendimendu handiagoko argiak, eraginkortasun handiagoko argi-iturriak eta/edo erregulazio- eta kontrol-ekipo elektronikoak jarriko dira, eta ordezkaturako argiteriaren inguruneko argi-kutsadura murriztea ahalbidetuko dute.

Lagungarri gisa eta mugarik gabe, honako **jarduketa** hauek **hautatu** ahal izango dira:

- **Udalaren kanpoko argiteria-instalazioak berritzea, teknologia eraginkorragoa erabiliz eta telekudeaketa barne.**
- Argiteria-instalazio erreformatuak **euskarri fisiko eta teknologiko gisa** erabili ahal izango dira **kalitatezko Internetera konektatutako sareak hobetzeko edo ezartzeko** (adibidez, Wifi bidez), betiere energia aurreztearekin lotutako jarduketetarako beharrezkoa bada, hala nola guneak sentsorizatzea Smart Cities motako jarduerak egiteko.
- **Kanpoko argiteria-sareak, semaforoak eta bestelako seinaleztapen-lineak automatizatzea.**
- Gainera eta aurretik adierazitakoaren arabera argiteriaren eraginkortasun energetikoa hobetzen duen proiektu baten parte badira, hautatu ahal diren jarduketak ere izango dira, **argi-kutsadurari buruzko azterlanetarako laguntza teknikoak eta kutsadura hori murrizteko ekintza-planak.**
- Horrez gain, proposamenek, **proiektu bereziak** izan daitezten, **ikerketa eta berrikuntza zientifikoa eta teknikoa sustatzea justifikatu behar dute**, ematen dituzten soluzioetan. Horretarako, kanpo-argiteriko instalazioetako energia-eraginkortasunari buruzko egungo erregelamenduan ezarritakoak baino baldintza hobeak betetzea erraztuko dute, erregelamendu berriak aurreikusten ditueni aurrea hartuz, eta aurre, energia-eraginkortasunean, argi-kutsaduraren murrizketan, IKTetan eta abarretan argiteria-teknologia berritzaileenak txertatuz.

## Gastuetarako aldi hautagarria

**Eskaera erregistratzen den dataren ondoren** gauzatzen hasten diren eskuratzek eta jarduketak baino ez dira hautatuko. Lanen hasiera markatuko duen mugarria lizitazio-pleguen argitalpena izango da.

**Gauzatzeko epea:** Mailegu itzulgarriaren kontratuaren eskritura publikoa formalizatzen denetik gehienez ere **hamabi hilabeteko** epean, erakunde onuradunak programari atxikitako jarduerak gauzatu direla egiaztatu beharko du.

## Laguntzen zenbatekoa

Deialdi honetako laguntzek **10 urterako interesik gabeko mailegu itzulgarriaren** modalitatea izango dute.

Hautagarria den inbertsioa aitortzen duten eta **300.000 euroko edo gehiagoko inbertsioa** eskatzen duten jarduketak bakarrik aurkeztu ahal izango dira.

300.000 eurotik beherako jarduketak beste eskatzaile batekin edo batzuekin batera taldekatuta izapidetu beharko dira, gutxieneko inbertsio hori baino zenbateko handiagoko jarduera hautagarri bakar gisa, probintziako diputazio baten edo erakunde baliokide baten bidez izapidetuta eta kudeatuta, edo dagokion mankomunitatearen edo udalerrri-elkartearen bidez.

**Gehienez ere 10.000.000 €** emango dira proiektu eta onuradun bakoitzeko.